



IRAKASKUNTZA-GIDA 2023/24

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa 2. maila

IRAKASGAIA

25057 - Oroimena eta Erabakiak Hartzea

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

"Oroimena eta erabakiak hartzea" irakasgaia Psikologiako Graduko bigarren mailan kokatuta dago, hain zuen ere, lehenengo lauhilabetean. Oinarrizko psikologiako jakintza arloko derrigorrezko materia dugu. Irakasgaia ondo jarraitzeko lehenengo kurtsoan eskuratzen diren edukiak funtsezkoak dira: prozesu kognitiboen (arreta, pertzepzioa, motibazioa, ikaskuntza,...) funtzionamendua, edo metodologiako eta ikerkuntzaren arloan eeskuratutako gaitasunak. Helburu nagusia zera da: giza oroimena eta erabaki hartzearekin lotutako prozesuen eta fenomenoaren ezagutza teoriko eta praktikoak eskuratu. Hain zuzen ere, oroimen sistemak ezagutu; prozesuak; ikerketetan erabilitako prozedurak, eta ebaluaketan. Bukatzeko, eguneroko bizitzan azaltzen diren egoeretan ezagutzak aplikatzen gai izatea.

Irakasgai honek UPV-EHUko Berrikuntza, Gizarte konpromisu eta Kulturgintza Errektoreordetzak bultzatutako IKDi3 hezkuntza berritzailetako proiektu batean parte hartzen du (IKDi321-22 kodigoa). Proiektuaren izena "Oinarrizko prozesu psikologikoen inguruko ikaskuntzaren promozio zientifiko, sortzaile eta autonomoa metodologia aktiboen bitartez" da. Proiektu honen helburua gure unibertsitateak bultzatzen duen hezkuntza ereduan lantzea da, hau da, IKD-i3 eredu ("i ber hiru"). Eredu honek gure unibertsitateak hiru arlo konkretutan dituen jakintzetara orientatu nahi ditu irakasgaiak: ikaskuntza, ikerkuntza eta iraunkortasuna.

Ikasgai honen gida osoa eta zehatza (ikasle-gida) eskuragarri izango da e-Gela plataforman.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

- 1.-Oroimen sistemak, eta euren funtzioak eta ezaugarriak ezagutzea eta oroimenaren psikologiako teoriak ulertzea.
- 2.-Kodifikazio prozesuetan eta informazio berreskurapenean eragiten duten aldagaiak ezagutzea, eta ahazmenarekin zerikusia duten zergatiak eta iraupen handiko oroimena mantentzen duten kausak.
- 3.-Esparru desberdinetan oroimena ebaluatzeko teknikak eta neurriak erabiltzen ikasi.
- 4.-Erabakiak hartzeko prozedurak ezagutu eta hutsak identifikatu.
- 5.-Erabaki eraginkorrak hartzeko estrategia egokiak erabiltzen ikasi.
- 6.-Informazio-teknologia berriak erabiliaz ariketak ebatzi eta kasuak-mota analisiak erabiliaz txostenak burutzen ikasi.

Ikasgai honek lehen aipatutako IKD-i3an parte hartzen duenez enfasi berezi bat jarriko da honako zeharkako konpetentzietan promozioan (UPV-EHUko 2019ko katalogotik aterata):

- Autonomía eta autoerregulazioa (ikasleek beraien prozesu kognitibo metakognitiboen inguruan kontzientzia har dezatela eta optimiza ditzatela ikasterako orduan eta erabakiak hartzerakoan).

- Konpromisu soziala (mota desberdinetako erronken aurrean ikasleen ekintza enpatikoak eta arduratsuak sustatzea).

- Informazioaren kudeaketa eta hiritartasun digitala (ikasleek informazio zientifikoaren erabilera kritiko, fidagarri eta arduratsu bat garatu dezatela zainduz)

- Berrikuntza eta ekintzailtza (Ikasleek beraien gaitasun berritzaile eta sortzaileak optimizatzea bultzatuz)

- Pentsamendu kritikoa (judizio arrazoituen balioa analizatzeko, zalantzan jartzeko eta kontzientzia hartzeko gaitasuna bultzatuz).

Zeharkako konpetentzia hauek ikasgaia honako Garapen Iraunkorrerako Helburuetara (Objetivos de Desarrollo Sostenible, ODS, Agenda 2030, ONU(bultzatzen dute:

O4, Kalitatezko hezkuntza

O5, Genero berdintasuna

O8, Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.

O10, Desberdintasunen murrizketa

Aipatutako zeharkako konpetentziak (pentsamendu kritikorako eta zalantzan jartzeko joera, berritzailea dena, sormenduna…) dituen persona batek garapen iraunkorra, giza eskubideak, gereno berdintasuna, bake eta ez biolentzia kultura, etab, bultzatuko ditu probabilitate gehiagoz. Gainera, konpetentzia hauek ekintzailtza eta erronka ekonomiko eta sozialen aurrean aurre egiteko modu efikazagoa bultzatuko dute.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

PROGRAMA TEORIKO-PRAKTIKOA

1.Gaia-Oroimenaren Psikologiako sarrera: Sistemak eta neurriak. Oinarri neuronalak eta oroimenaren neuropsikologia. (1, 3, 4 gaitasunak)



- 1.1.Oinarrizko kontzeptuak. Oroimenaren definizioak.
- 1.2.Oroimenaren Psikologiako hastapenak.
- 1.3.Oroimenaren garrantzia. Zer da eta zertarako balio duen?
- 1.4.Oroimen sistemak eta neurriak. Bata ala anitza.
- 1.5.Egungo ikuspegiak

- 2.Gaia-Iraupen laburreko etan lan-oroi mena (1, 2, 3, 4 gaitasunak)
 - 2.1. Kontzeptu nagusienak.
 - 2.2. Zentzumen- oroimena
 - 2.3. Iraupen laburreko oroimena (ILO)
 - 2.3.1. Zertarako balio du lan oroimena?
 - 2.3.2. Lan oroimenaren eredu berria (Baddeley).
 - 2.3.3. Beterazle zentralaren funtzioen balorazio neuropsikologikoa.

- 3.Gaia-Oroimenaren prozesuak:kodifikapena, mantentzea eta berreskurapena (1, 2, 4 gaitasunak)
 - 3.1. Zer ulertzen dugu kodeketa prozesuaz mintzatzen dugunean?
 - 3.2. Kodeketa eta mantentze prozesuak.
 - 3.2.1. Prozesaketa mailen hipotesia.
 - 3.2.2. Informazioaren kodeketa eta mantentze prozesuak mugatzen eta errazten duten aldagaiak.
 - 3.3.Berreskurapen prozesuak.
 - 3.3.1. Kodeketa espezifikazio
 - 3.3.2. Egoeraren eragina oroimenean
 - 3.3.3. Ahazmena: Motak, zergatiak eta teoriak
 - 3.4 Oroimenaren bekatuak.
 - 3.5.Ikaskuntza inplizitua.

- 4.Gaia-Iraupen handiko oroimena eta oroimenean ezagutza nola irudikatzen den (1, 3, 4 gaitasunak)
 - 4.1.Iraupen handiko oroimenaren definizioa eta egitura.
 - 4.2.Oroimen semantikoa.
 - 4.3.Gertaera- oroimena edo episodikoa.
 - 4.4.Ezagutza konplexuaren errepresentazioa:
 - 4.4.1.Eskemak.
 - 4.4.2.Gogamen-irudikapena.

- 5.Gaia-Oroimenaren ikasketa esparruak eta inplikazio praktikoak (2, 3, 4 gaitasunak)
 - 5.1.Oroimenaren ikuspegi ekologikoa.
 - 5.2.Oroimena entrenatzeko teknikak edo programak.
 - 5.3.Lekuko oroimena.
 - 5.4.Oroimenak kale egiten duenean.

II.-ATALA: ERABAKI HARTZEAK

- 6.Gaia-Erabakiak hartzearen prozesua eta eredu teorikoak (5, 6 gaitasunak)
 - 6.1.Zer da eta zer suposatzen du erabakiak hartzea?
 - 6.2.Erabakiak hartzean parte hartzen duten osagaiak.
 - 6.3.Erabaki argiak.
 - 6.4.Erabakiak hartzean eragintzen duten kanpoko aldagaiak.
 - 6.5.Eredu teorikoak.

- 7.Gaia-Eguneroko bizitzan erabakiak hartzean sortzen diren arazoak eta akatsak. (5, 6 gaitasunak)
 - 7.1.Erabaki zuzenak eta akatsak: Heuristikoen erabilpena.
 - a)Adierazgarritasuna.
 - b)Eskuragarritasuna (disponibilidad)
 - c)Ainguraketa (Anclaje).
 - d)Gainkonfiantza.
 - 7.2.Aplikagarritasunak esparru desberdinetan

PROGRAMA PRAKTIKOA

- A) GELAKO PRAKTIKAK (13, 14,16 gaitasunak). Arazoetan oinarritutako ikaskuntza
 - 1.-Arazo egituratzailea
 - 2.-Biltegi bakarra ala biltegi anitza (2.a) eta Puskaka zatitzea (5.a)
 - 3.-Ahazmena: Cleave Wearing eta H.M. kasu klinikoak
 - 4.-Beterazle zentralaren ebaluaketa (8.a)
 - 5.-Prozesaketa mailak (10.a)
 - 6.-Bideo Saioa: Oroimenaren bekatuak



- 7.-Oroimen semantikoa: aurre ezagutzaren eragina. Eskemen eragina
- 8.-Oroimen autobiografikoa eta errealitatearen kontrola
- 9.-Oroimena hobetzeko: Proba Mnemoteknikoak
- 10.-Lekukoen oroimena: Elkarrizketa kognitiboa
- 11.-Bideo Saioa: Erabakiak hartzea: garunak gutaz erabakitzen du?
- 12.-Erabaki hartze argiak: ariketa praktikoak

B) KONPUTAGAILU- PRAKTIKAK (13, 14,16 gaitasunak))

- 1.- Interneteko lanabesak eta baliabideak.
- 2.-Oroimen faltsuak.
- 3.- Oroimenaren neurketa: oroimena neurtzeko testa.

C) TAILERRAK(13, 14,16 gaitasunak))

Ikasleak taldeka gai berezi aplikatu bat jorratu behar dute eta aurkeztu ere. Guk gaitegiarekin zerikusia duten sei gai proposatuko ditugu eta geroago ikasleek horietako bat aukeratu behar dute edo zoriz tokatzen zaiena landu behar dute. Abiatutzat hartutako artikulu enpiriko batean oinarrituko dira eta osatuko dute. Testu zientifiko horiek arlo profesional desberdinekin lotuta daude. Hau da, Aukeratutako artikulu bat landu eta erlazonaturiko beste eduki batzuekin zabaldu beharko dute lana.

-2. astea: 4-5 eko taldeak egin eta gaiak aukeratu.

-3. astean: datu baseetan bilaketak egiten hasi.

-5. astean: Ikasleek erabakita behar dute zein den landuko duten artikulua eta zein norabidetan zabaldu nahi duten beren lana. Hasieran, ikasle bakoitzak bere lana egingo eta gero beste ikasleekin adostuko bakoitzak zertaz arduratuko den.

-9-14. asteetan: Sesio bakoitzean ikasleek beren lana aurkeztu beharko dute.

Gaiak tailerretan azaldu eta erabakiko dira. Aukeratzeke proposatzen ditugun gaiak honakoak dira:

- 1.Tailerra-LAN OROIMENA
2. Tailerra-DROGEK OROIMENEAN DUTEN ERAGINA
- 3.Tailerra-ZAHARTZAROA ETA IHO OROIMENA.
- 4.Tailerra-OROIMENA ETA TRAUMAK
5. Tailerra-LEKUKOEN OROIMENA.
6. Tailerra-ERABAKIAK HARTZEA

D) MINTEGIAK

Ikasleek bigarren lan labur bat aurkeztu behar dute arazo egituratzaileari erantzunez.

METODOLOGIA

Irakaskuntza metodologia berritzaileak erabiliko ditugu. Hots, metodologia aktibo mistoa. Beste hitzetan, Arazoetan, kasuetan eta proiektuetan oinarritutako jarduerak aplikatuko dira.

A.-Eskola magistralak. Eduki teorikoak aztertuko dira.Dena den, tarteka arazoei aurre egiteko ariketak, kasuen analisia edo demostrazioa txikiak ere egingo dira (% 60 Proposatzen dugu, bi partzietan). Ziurrenik Lauhilabeteko 8. astean hasierako gaiei (1-3) buruzko lehenengo partziala egingo da. Beste irakasleekin adosteke dago. Atal honek azken notaren % 30 balio du. Azterketa deialdi ofizialarekin batera bigarren partzialaren ebaluazioa egingo da (% 30). Azterketa teorikoan erabiliko den formula honakoa duzue. Formula: Erantzun egokiak – Akatsak/ alternatibak.

Atal teorikoa gainditzeko 6 puntutik gutxienez 3 atera behar da. Gainontzeko, % 40 atal praktikoetan antolatu diren jarduera eta lanak beteaz lortu daiteke.

Eskola magistralen barruan ikasleek derrigorrezko irakurketa batzuk izango dituzte, zeinak azterketa partzietan galdetuko diren. Derrigorrezko irakurgai hauek ikasleei aurkeztuko zaizkie kurtsoaren hasieran.

B.-Eskola praktikoak (% 40). Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI) Metodologia jarraituko dugu Tailerretan, Konputagailu-praktiketan eta Gelako Praktiketan. Ikaslearen koadernoan izango da ikasleek ikasturte hasieratik erabiliko duten gida-liburua praktikak egiteko. Notaren haztapan-neurriak honela banatzen dira:

-Ikaslearen koadernoan (portafolioa): Eskola teorikoetan, konputagailu- gelatan, gelako praktiketan eta mintegietan (% 20). Ikasleek koadernoan jarduera desberdinetan proposatzen diren ariketak, galde-sortei erantzun, txostenak eta abar bete behar ditu.

-Taldeka txostenak egin eta defendatu. Tailer ez industrialetan lan aplikatuei buruzko lanak taldeka idatzita ekarri eta aurkeztu eta defendatu behar dituzue (% 10). Lana taldeka egin eta defendatu. Bestalde, beste lan bat hirunaka egin behar duzue. Arazoaren ebazpenarekin zerikusia duen txostena (% 10).

-Bestalde, bolondreski nahi duenak Lan Gehigarriak egin ditzake. Ikasleek bere kabuz erabaki dezakete jarduera gehigarri desberdinak betetzen dituen ala ez (% 10).

Atal praktikoa ere gainditu behar da, irakasgaia aprobatzeko. Hain zuzen ere 4 puntutik gutxienez 2 lortuaz. Hots, irakasgaia gainditzeko derrigorrez bi atalak gainditu behar dira.

Praktiketarako ikasle-taldeak 6 kide bitartekoak izango dira. Edozelan ere, ebaluazioa beti indibiduala izaten da. Lan batzuk ikasle-taldearenak eta bestetzuk norbanakoarenak.

Irakasgaiaren ebaluaketan zeharkako gaitasunen lorpen maila kontutan hartuko da. Horretarako, tresna bereziak erabiliko ditugu (rubrikak).



Honako jarduerak erabiliko dira: artikulak eztabaidatu, oroimena neurtzeko tresnak ezagutu, esperimentuen simulazioak, ariketak, bideoak ikusi eta aztertu....

- Gelako praktikak: kasuak. Esperimentuen demostrazioak. Ariketak. Arazoak. Eztabaidak.
- Tailer ez industrialak: gai aplikatuen aurkezpenak. Ariketak. Arazoak.
- Ordenagailuko praktikak: informazioa bilatu. Ebaluazio neuropsikologikoa. Esperimentuak simulatu.
- Mintegiak(oroimenarekin zerikusia duten alor aplikatuen ezatabaida).

Oharra: irakasgaia guztira gaintzeko bi atalen emaitzak batuko dira. Esaterako, 3+2=5.

OHARRA:sakanogo garatua dago E-gelan dagoen ikaslearen gidan.

Tutoretzen funtzionamendua: e-postaz hitz-orduak eskatuko dira bai aurrez aurre tutoretzak edukitzeko naiz tutoretza birtualak eskatzeko (eGela eta BBC bidez).

Irakasgaia lehen aipaturako IKD-i3 proiektuaren esparruan garatzean, ikasleek bi jarduera praktiko osagarritan (jarduera boluntarioak, anonimoak, berez prestakuntza-balioa dutenak eta nahiko laburrak) jardungo dute, "Helburu" diren gaitasunen eskuratzeko-maila ebaluatzeko.

Lehenengo jarduera ikasturtearen hiru unetan egingo da (ikasturtearen hasieran, erdian eta amaieran), eta 3-4 orrialdeko artikuluko zientifiko labur bat irakurriko da, eta ondoren:

- 1) laburtzea (informazio zientifikoa, idatzizko adierazpena, sintesi-gaitasuna erabiltzen direla frogatzeko),
- 2) haren analisi kritiko labur bat egitea (pentsamendu kritikoa eta adierazpen idatzia erakusteko)
- 3) eta artikuluan aurkeztutako ikerketa-ildoari jarraituko dion diseinu esperimental bat proposatzea (sormena eta berrikuntza erakusteko).

Beste jarduera ikastaroaren bi unetan egingo da (hasieran eta amaieran), eta kontzeptuen ausazko pareak proposatzean eta parte-hartzaileei 0tik 100era bitarteko eskalan kontzeptu horien artean hautematen duten distantzia baloratzeko eskatzean datza. Pare horietan, irakasgaiaren xede diren prozesu psikologikoen kontzeptuak eta psikologiaren hainbat arloekin lotutako beste kontzeptu batzuk sartuko dira. Zeregin horren bidez, ikasleek erabiltzen dituzten sare semantikoen bilakaerari buruzko ezagutza lortu nahi da, prozesu kognitiboekin lotutako kontzeptu akademikoei dagokienez.

*Egoeraren arabera berriro ere online klaseetara bueltatuko bagina, bai klase teoriko baita praktikoak ere Blacbo

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	32	2	12		3		11		
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	48	3	18		4,5		16,5		

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
 GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
 TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 60
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Banakako lanak % 10
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 10
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

IRAKASGAIAREN EBALUAKETA: ATAL TEORIKOA 6 PUNTU eta ATAL PRAKTIKOA 4 PUNTU.

I) Alde batetik, ETENGABEKO EBALUAKETA SISTEMA erabiliko dugu. Bi atal ditu:

Atal teorikoa.- Proposatzen dugu, Lauhilabeteko 7-8. astean hasierako gaiet buruzko lehenengo partziala egitea. Beste irakasleekin adosteke dago. Bi azterketa partziala burutuko dira. Gaintuz gero, materiala eliminatzen du. Azterketa teorikoa erabiliko den formula honakoa duzue. Formula: Erantzun egokiak – Akatsak/ alternatibak
 Atal teorikoa gaintzeko erdia atera behar da (3 puntu) beste jarduera praktikoei bataz bestekoa egiteko.
 Atal teorikoko partzialetan klaseko apunteen inguruan galdetuko da, eta baita kurtso hasieran ezarri diren derrigorrezko irakurgaien inguruan ere.

ATAL PRAKTIKOA: 4 puntu.Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI) Metodologia jarraituko dugu Tailerretan, Konputagailu-praktiketan eta Gelako Praktiketan. Ikaslearen koadernoan izango da ikasleek ikasturte hasieratik erabiliko duten gida-liburua praktikak egiteko. Notaren haztapen-neurriak honela banatzen dira:

- Ikaslearen koadernoan (portafolioa): Eskola teorikoetan, konputagailu- gelatan, gelako praktiketan eta mintegietan (% 20). Ikasleek koadernoan jarduera desberdinetan proposatzen diren ariketak, galde-sortei erantzun, txostenak eta abar bete behar ditu.



-Taldeka txostenak egin eta defendatu. Tailer ez industrialetan gai- aplikatuei buruzko lanak taldeka idatzita ekarri eta aurkeztu eta defendatu behar dituzue (% 10). Lana taldeka egin eta defendatu. Bestalde, beste lan bat hirunaka egin behar duzue. Arazoaren ebazpenarekin zerikusia duen txostena (% 10).
-Jarduera Gehigarriak. Ikasleek bere kabuz erabaki dezakete jarduera gehigarri desberdinak betetzen dituen ala ez (% 10).

Praktika ataleko entregak egela bitartez egingo dira.

Irakasgaiaren ebaluaketan zeharkako gaitasunen lorpen maila kontutan hartuko da. Horretarako, tresna bereziak erabiliko ditugu (rubrikak).

Oharra berezia: Bi atalak gainditu behar dira, teorikoa (3 puntu) naiz praktikoa (2 puntu) notak batzeko eta irakasgaia gainditzeko.

II)Bestetik, ohiko ebaluaketa.Ikasle guztiek ebaluatuak izateko eskubidea daukate. Horretarako ikasturteko bi deialdi ofizial izan ohi dira, gure kasuan urtarrilean eta ekainean- uztailean.

Ha uda, Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita.

Deialdiari uko egiteko oharra:

Ikasle batek ebaluazio jarraia egiten ez duenean eta azterketan zati teoriko zein zati praktikoz ebaluatu behar badu, nahikoa izango da azterketara ez aztertzea deialdiari zuzenean uko egiteko. Aldiz, ikasleak ebaluazio jarraia egiten duenean, eta lehen partziala gaindituta duenean, baina arrazoi ezberdinengatik bigarren partzialera ez presentatzea erabakitzen duenean deialdiari uko egiteko ikasgaiko irakaslegoari idatziz adierazi beharko dio irakaskuntza aldia amaitu baino hilabete lehenago, gutxienez.

EBALUAKETA BIRTUALA:

*Ebaluaketa birtuala: egoerak eskatuko balitz ebaluaketa birtualki egingo litzateke: zati praktikoa (%40a) gelako praktika, ordenagailu praktika, mintegi eta tailerrekin osatuko litzateke, zeinetan entregatu beharreko txostenak egela bitartez iristaraziko liratekeen irakasleei. Talde lanak presentatzeko berriz Blackboard Collaborate plataforma erabiliko litzateke. Ikasleak zati hau aprobaturiko ez balu lanen bitartez, edota zuzenean azterketa egun ofizialean egin nahiko balu atal praktikoa, alde batetik 3 galdera irekiko azterketa bat egingo luke (3 galdera 6tik aukeratzeko; %30eko balioarekin) eta bestetik, % 10 balio duen lan enpiriko bat presentatuko luke, ikasgaiarekin erlacionatutako gai baten inguruan.

**Zati teorikoa ere modu telematikoan ebaluatu beharko balitz, egelako galdetegi bidez egingo litzateke azterketa. Honek, azterketa presentzialaren ezaugarri berdina izango litzuke: test moduko azterketa zeinetan erroreek herena penalizatzen duten.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

1.–Irakasgaia ohiko deialdian gainditzeko ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketa eta ebaluaketara aurkezteko.

2.–Ezohiko deialdian irakasgaiak ebaluatzeko sistema bakarra azken ebaluazioa izango da.

3.–Ezohiko deialdiko azken ebaluazioko probak definituta dauden ikaskuntzaren emaitzak ebaluatzeko eta neurtzeko behar beste azterketa eta ebaluazio jarduera izango ditu, emaitzak ohiko deialdiaren pareko baldintzetan ebaluatu ahal izateko.

Ikasleek ikasturtean zehar eskuratutako emaitza positiboak gorde ahal izango dira. Aldiz, ikasturtean zehar egindako etengabeko ebaluazioaren emaitzak negatiboak badira, emaitzak ezin izango dira ezohiko deialdirako mantendu eta deialdi horretan ikasleek kalifikazioaren % 100 eskuratu ahal izango dute.

Hain zuzen ere, irakasgaia honetan, ikasle guztiek atal teorikoa gainditu beharko dute (6tik gutxienez 3 puntu lortuz) eta atal praktikoa (4 puntutik 2 puntu lortuz). Azkeneko atal hau gainditzeko: banakako txostena (puntu 1) eta azterketa praktikoa (3 puntu).

*Ikasgaiaren ezohizko ebaluaketa egoera dela eta online egin beharko balitzake: zati teorikoaren azterketa egelako galdetegi bidez egingo litzateke (errore bakoitzeko penalizazio herena izango da). Atal praktikoa ebaluatzeko (ikasleak iada gaindituta ez badu aurretik), alde batetik 3 galdera irekiko azterketa bat egingo luke (3 galdera 6tik aukeratzeko; %30eko balioarekin) eta bestetik, % 10 balio duen lan enpiriko bat presentatuko luke, ikasgaiarekin erlacionatutako gai baten inguruan.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

1.-Materiala eta euskerazko liburua (Baddeley, 2014).

2.-Praktika-koadernoak

3.-Derrigorrezko irakurgaiak (artikuluak, liburuen kapituluak,...). Kurtso hasieran iritsaraziko zaizkio ikasleari.

4.-e-gelan dauden ariketa eta jarduerak.



BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- Baddeley, A. (1998). Memoria Humana: Teoría y práctica. Hillsdale . LEA.
- .-Baddeley,A; Eysenck,M.W. y Anderson,M.C. (2015). Memoria. Madrid: Alianza Editorial.
- Baddeley, Eysenck, M.W. y Anderson. (2009). Memory.Hove: PsychologyPress.
- .-Ballesteros, S. (2010). Psicología de la memoria. Madrid: UNED-Editorial Universitas.
- Ballesteros, S. (2010). Prácticas de Psicología de la memoria. Manual de prácticas y cuaderno de trabajo. Madrid: UNED-Editorial Universitas.
- Hammond, J.S., Keeney,, R.L. eta Raiffa , H. (2002). Decisiones inteligentes: guía práctica para tomar mejores decisiones.Barcelona: Gestión 2000.
- Navarro, J.I. (1993). Aprendizaje y Memoria Humana. Madrid: McGraw Hill.
- Papagno, C.(2008).La arquitectura de los recuerdos. Madrid: Paidós.
- Ruis Varga, J.M. (1991). Psicología de la Memoria. Madrid: Alianza.
- Ruiz Vargas , J.M. (1985). Memoria icónica y percepción: Una defensa del concepto de almacenamiento icónico en el procesamiento de la información visual. Revista de Psicología General y aplicada, 40, 631-646.
- Sanchez,, A., Arana , C. y Crespo A. (1999). Prácticas de psicología de la memoria. Madrid: Alianza.
- Sebastián, M.V. (1992). Memoria ¿si o no ?. Madrid: Alhambra Longman.
- Ruiz-Vargas, J.M. (2010). Manual de Psicología de la Memoria. Madrid: Editorial Síntesis.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Adarraga J. L. y Zaccagnini (1994.). Psicología e inteligencia artificial. Madrid: Trotta.
- Aizpurua, A., Migueles, M., & García-Bajos, E. (2014). Accuracy of eyewitness memory for events in young and older adults. En M. P. Toglia, D. F. Ross, J. Pozzulo & E. Pica. The Elderly Eyewitness in Court (Chapter 9, pp. 210-231). New York, NY: Psychology Press
- Diges, M. (1997). Los falsos recuerdos. Madrid. Paidos.
- Drucker y cols. (2002). La toma de decisiones. Deusto: Harvard Business Review
- Foster, J. K. y Jelicic, M. (1999). Memory: Systems, process, or function. Oxford, Oxford University Press.
- García-Bajos, E.; Migueles, M. y Aizpurua, A. (2016). Memoria de delitos en personas mayores ¿son testigos fiables? En J.I. Ruiz Pérez, H.O. Vargas y L.M. Chacón (Eds.). Psicología del testimonio en la investigación del fraude a los seguros (Cap. 4, pp. 123-171). Bogotá: Instituto Nacional de Investigación y Prevención del Fraude - Universidad Nacional de
- Johnson, M. K. y Raye, C. L. (1981). Realit y monitoring. Psychological Review, 88, 67-85.
- Loftus, E. F. (1979). Eyewitness testimony. Harvard, MA: Harvard UniversityPress.
- Paz Enriquez, S (2019). Guía Práctica para mejorar la memoria. Madrid: Libsa.
- Ross, D. F., Read, J. D. y Toglia, M. P. (1994). Adult eyewitness testimony. Current trends and developments. Nueva York: Cambridge University Press.
- Ruiz, M. (2004). Las caras de la memoria. Madrid: Pearson Educación. Ruiz-Vargas, J. M. (1994). La memoria humana: función y estructura. Madrid: Alianza.
- Ruiz-Vargas, J. M. (2002). Memoria y olvido. Madrid. Alianza Editorial.
- Schacter, D. L. (2001). Los pecados de la memoria. Barcelona : Ariel (Traducción, 2003).
- Schacter, D. L. y Tulving E. (1994). Memory systems 1994. Cambridge, MA, MIT Press.
- Shaw, J. (2016). The Memory Illusion: Remembering, Forgetting, and the Science of False Memory. Londres: rh Books.
- Vidal-Martí, C (2015). Entrena tu memoria. Barcelona: Ediciones invisibles

Aldizkariak

GASTELANIAZ:

- Apuntes de Psicología
- Boletín de Psicología
- Cognitiva
- Estudios de Psicología
- Infancia y Aprendizaje
- Psicológica
- Revista de Psicología General y Aplicada
- Psicothema

INGELESEZ:

- Annual Review
- Applied Cognitive Psychology
- Bulletin of the Psychonomic Society
- European Journal of Cognitive Psychology
- Journal of Experimental Psychology: Applied
- Journal of Experimental Psychology: General



Journal of Experimental Psychology: Learning, Memory and Cognition
Journal of Memory and Language
Memory
Memory & Cognition

EUSKARAZ:

- Uztaro.
- Elhuyar.

Interneteko helbide interesgarriak

A.-ELKARTE ZIENTIFIKOAK:

- Sociedad Española de Psicología Experimental (SEPEX) <http://www.sepex.es>
- Society for Applied Memory and Cognition (SARMAC) <http://www.sarmac.org/>
- American Psychological Association (APA) <http://www.apa.org/ethics>
- Principios éticos para investigar con humanos: <http://www.apa.org/ethics>
- Psychonomic Society <http://www.psychonomic.org/>

B.-LABORATEGI BIRTUALAK:

Esperimentuetan parte hartzeko edota ariketak burutzeko:

- American Psychological Association: <http://www.psych.hanover.edu/research/exponent.html>
- Experimentos de psicología: <http://www.olemiss.edu/PsychExps/>

C.-IKERKUNTZA TALDEAK:

- <http://whoville.ucsd.edu/> (Larry Squire) Neuropsicología, sistemas de memoria, medidas.
- <http://www.wjh.harvard.edu/~dsweb/> (Daniel Schacter) Memoria implícita, neuropsicología, sistemas de memoria, pecados de la memoria, medidas.
- <http://psych.wustl.edu/memory/NewStuff/People/roediger.htm> (Henry Roediger) Falsas memorias, procesos de memoria
- <http://www.seweb.uci.edu/faculty/loftus/> (Elisabeth. Loftus) memoria de testigos, memoria autobiográfica, falsas memorias, implantación de recuerdos.

D.-OROIMENAREKIN TREBATZEKO ARIKETAK:

- <http://www.juegofanatico.cl/juegofan/games/javfla/memoria2/index.htm>
- http://www.muchojuegos.net/c/Juegos/Memoria/Memoria_Visual/

E. BIDEOAK:

<http://www.psychonomic.org/annual-meeting.html>.

OHARRAK